



2HI-067/07-P05-A

TEODORO OLEA ITURREGI, EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO BATZORDEAREN BIZKAIKO HIRIGINTZA PLANGINTZAKO ATALEKO IDAZKARIAK.

ZIURTATZEN DUT: ekainaren 8an Bizkaiko Hirigintza Plangintzako atalak egindako 4/2007 bileran, kideen gehiengo absolutua osatzen zuten bertaratuek aho batez, besteak beste, honako hau erabaki zutela:

"I.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legean, eta Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundeen arteko harremanei buruzko Legea aldatzen duen uztailaren 16ko 5/1993 Legean ezarritakoaren arabera, Balmasedako udalerriko Arau Subsidiarioak aldatzeko eta bertan "SAPU-UA-4 Rebollar" sortzeko espedientearen txostena egin da, honako hau kontuan izanik:

- 1) Espedientearen aldeko txostena egin da, ekonomia-jardueretarako lurzoruaren kuantifikazioari dagokionez eta Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren betetze mailari dagokionez.
- 2) Uren Zuzendaritzak espedientearen aldeko txostena egin du, betiere txostenaren edukian aditzera ematen diren baldintza lotesleak betetzen badira.

II.- Espedientea behin betiko onartzeko eskumena duen organoari igorriko zaio ziurtagiri honi gaineratzen zaion Uren Zuzendaritzaren txostena (I. Eranskina)."

Eta horrela jasota gera dadin, Bilera honen akta onartu aurretik luzatu eta sinatu dut ziurtagiri hau, Vitoria-Gasteizen, 2007ko ekainaren 8an.

IDAZKARIA



Izta.: Teodoro Olea.